

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Baluartan estreinatuko dute "Artxipielagoa", kantua, bertsolaritza, musika eta irudia uztartzen dituen lan berritzailea

Apirilaren 28an izango da ikuskizun hori, Baluarte Fundazioak antolatuta eta Nafarroako Gobernuak babestuta, Euskarabidearen bitartez

Asteartea, 2017.eko martxoak 21

"Artxipielagoa" da ikuskizun berri eta berezi horren izena; kantua, bertsolaritza, musika eta proiektioak uztartzen ditu lehen aldiz, eta eszenatoki berean elkartuko ditu Ainhoa Garmendia sopranoa, Andoni Egaña bertsolaria, Pello Ramirez akordeoi- eta txelotzaitzailea, Garikoitz Mendizabal txistularia, German Ormazabal piano-jotzaitzailea eta Belen Ibarrola arte-zuzendaria.



Ezkerretik eskuinera: Andoni Egaña, Ainhoa Garmendia, German Ormazabal, Josu Reparaz eta Garikoitz Mendizabal.

Baluarte Fundazioak antolatu du ikuskizuna, eta Euskarabidea Euskararen Nafarroako Institutuak babestu du, herri-kantutegia eta familian eta lagunartean abesteko tradizioa berreskuratzeko helburuz. Apirilaren 28an estreinatuko dute, 20:00etan, Baluarte Ganbera Aretoan, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, 12 euroren truke.

"Artxipielagoa" ikuskizunak diziplinen arteko nahasketa proposatzen du, abesti klasikoak eta modernoak elkarrekin batasun perfektuan bizi diren nahasketa; "musika-uharteak", oso bestelakoak bata bestearengandik, baina elkarrekin kultura-artxipielagoa osatzen dutelarik, eta publikoaren parte-hartzea ikuskizunaren funtsezko elementu bihurtzen delarik.

Horrela, Andoni Egaña bertsolariak inprobisatu egingo du, eta musikaren "topaketa" honetan bat egiten duten uharte eta artxipielagoei buruz hausnartuko du. Ainhoa Garmendia sopranoak, German Ormazabal piano-jotzaitzaileak, Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Pello Ramirez txelo- eta akordeoi-jotzaitzaileak lagunduta, abesti-egitarau heterogeneoa interpretatuko du; hala nola, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Oskorri eta Ken Zazpiren herri-kantak, bai eta Jesus Guridi, Tomas Garbizu eta Jose Maria Iparragirreraren konposizioak ere.

Hori guztia, arte-zuzendariak "Artxipielagoa" ikuskizunerako propio sortu dituen irudi- eta bideo-proiektioekin aberastuta eta osatuta.

Baluartan estreinatuko da lan berri hori, eta 14 emanaldiz osatutako

bira egingo dute ondoren, euskal hiriburu guztietan eta Nafarroako eta Euskadiko udalerrri askotan, 2017. eta 2018. urteetan zehar.